

ISILPEKO GAIXOTASUNAK

Ainara Aizpurua

Ataun, 18 urte

*Anorexia edo Bulimiaren
hatzaparretan erori direnei,
maitasunez eta itxaropenez.*

Ur tanta freskoak banan-banan ari dira erortzen, zelai gozoetako berdetasunean galtzen, errepideko galipotaren kontra lehertzen.

Gustora irtengo nintzateke kalera; biluzik jarri eta, naturarekin bat eginik, euri hotzaren bustitasunean urtu, desagertu, betiko.

Sukaldean isilik daude denak, mutu, eta inor ez da ausartzen niri begietara so egiten. Nire malkoen beldur dira, nire saminaren beldur. Baina nik gustora hartuko nuke gorputz bero baten besarkada indartsua. Horrela bakarrik hustuko baintuzke nire barrenak, horrela bakarrik askatuko nukeelako erraiak erretzen dizkidan tristura krudel hau.

Euria gero eta indartsuago erortzen da eta, ipar haizeak gogor ekiten du bere bidean aurkitzen duen ororen kontra. Ni neu ere eramango banindu...

Izaro, Izaro, Izaro! Izaro maitea! Zergatik utzi nauzu bakarrik? Zergatik eman duzu amore maitea?

Nire negarrak sukaldeko isiltasuna hautsi du, tristura eta izua atzeman ditzaket inguratzen nautenen begiradetan eta, amaren beso goxoek bera-

hala inguratzen naute. Bere bihotzaren taupada lasaiek, Dum-Dum, Dum-Dum, Dum-Dum, neure taupadak baretzen dituzte, menderatu nauen saminararen indarra apalduz.

Zoritxarrez beti gogoratuko dut egun hau; Izaro, ama lurraren sakontasunean lurperatu dugun eguna.

Nire barnean zerbait hil balitz bezala sentitzen naiz; hutsik, beldurtuta, bakarrik.

Baina merezita daukat. Nik banekien Izaro heriotzari deiadarka ari zitzaiola, haren eskutik helduta joango zitzaigula. Bere begietan ikusten nuen, bere ezpainenatik entzuten nuen, bere gorputzera hurbilduz uki nezakeen... baina ez nuen sinestu nahi izan. Koldarkeriak itsuturik, Izarok bizitza maitatzen ikasiko zuela pentsatzen nuen! Eta orain, neure errua dela jakinik, sentimendu horren menpe bizitzera kondenatu dut neure burua.

Ama gorputza laztantzen hasi zait. Bere ezpainek leunki muxukatzen naute buruan, aitak, eskutik heldu eta bere ezpainetan maite zaitut isil bat marrazten duen bitartean.

Bai, badakit maite nautela, nik Izaro galdu dudan modu berean galduko nauten beldur direla... Baina ni ez naiz hilko, nik ez dut etsiko, nahiz eta une hauetan, ulergaitza dirudien, nahiz eta Izaroren ondoan lurperatuta egon nahi izan.

Besoetatik heldu eta logelara naramate. Bota beltzak askatu, galtza beltzak kendu, alkandora beltza erantzi... Beltza, beltza, BELTZA! Egun gogorra izan da gaurkoa, latza, krudela, gordina, BELTZA.

Haur txiki baten antzera oheratu naute. Argiak itzali eta amaren ezpainak sentitu ditut berriro. Aita, berriz, egurrezko kulunkagailuan eseri da, amets zaintzaile bat bailitzan eta, bere itzala bakarririk ikus dezakedan arren, badakit niri begira dagoela.

Euri tantek leihoaren kontra talka egitean ateratzen duten hotsak betetzen du gela. Zinez maite dut euriaren kantua. Begiak itxi eta kristal bustien doinua entzunez lokartu naiz. Euriaren kantua. Lainoen negarra. Kristal bustien doinu goxoa.

Ez dut amets gaiztorik izango, amets-zaintzailea, egurrezko kulunkagailuan baitago. Maite dut euuuriaren kaaantuuua. Aaamets gaiztorik ezzzz... Beltza... Kantuaaa...

Amets zaindaria gau osoa egurrezko kulunkagailu zaharrean igaro arren, behin baino gehiagotan esnatu naiz Izaroren irudia nire burutik urrunduhian.

Hildakoak bakean utzi behar direla irakatsi didate eta beldur naiz bere heriotza gainditu ezean, gauero nagusituko ez ote den nire ametsen erreinuaz.

Udazkeneko egun haizetsu batean ezagutu genuen elkar, sorgin-haizeak hosto gorrituak zirikatzten dituen egun horietako batean.

Donostiako poliklinikan nengoen eta, arratsaldeko seiak aldera, 24 urteko neska beltzaran bat ekarri zuten gelara.

Bizitzaren aurkako borroka bortitzean galtzaile, bere begi beltzek, nekea isladatzen zuten, etsipena. Bulimiaren ondorioz, bere buruaz beste egiten

saiatu zen arren, ironiarik handienaren modura, bizitzen jarraitu beharra izan zuen.

Kanpoan hostoek erortzen jarraitzen zuten, hosto gorri, hori, marroi..., sorgin-haizearen dantzan murgildurik, zoru eta zelaia kolore gorrixka liluragarriez estaliz.

Izaro ez zen naturaren ikuskizun zoragarri hartaz ohartu. Bost axola zion bere inguruan gertatzen zenak. Hil egin nahi, eta oraindik bizirik.

Depresio gogorak sufritzen zituen, denbora igaro ahala, sakonagoak, indartsuagoak eta iraunkorragoak bihurturik. Hilabeteak zeramatzan, munduari atek itxi eta bere sufrimenduan galdurik heriotzaren bila. Ez zuen inorekin hitzik egiten, ia ez zen kalera irteten. Oheko izarapean ezkutatzen zen bizitzatik ihesi.

Jan-bota, jan-bota, jan-bota..., gaixotasun suntsitzaile baten menpe aurkitzen zen, eta jadanik ongi zekien sendatu ezean hil egingo zela.

Baina gogorrena ez da hilko zaren ziurtasuna izatea, HILTZEKO DESIRA BIZIA izatea baizik. Bizitza, sufrikario amaigabe bilakatzen da eta heriotzak, sufrimenduaren amaiera eskaintzen dizu.

Orduak eman zituen lotan, lau, zortzi, hamabi..., hurrengo eguneko eguerdian esnatuz.

Begiak ireki zituenean, berehala ohartu nintzen lotan jarraitu nahi zuela, betiko lo sakonean geratu nahi zuela. Heriotzaren esku beltza atzeman zitekeen bere begirada ilunaren atzean.

Nekeak jota zegoen, indar aztarnarik gabe esperantza guztiak galduta.

Gaixotasunak gogor kolpatu zuen, are gogorra-go oraindik inguruko ezjakintasunak.

Jipoi bortitzak eman zizkieten bere lagunen galdera eta esamesek. Ulertezina omen da, argaldu nahi duen norbaitek hainbeste jatea. Ulertezina omen da, zeure buruari, esku, aho, eta eztarrian zauriak sortzerainoko erasoak egitea. Ulertezina omen da kilo batzuentzat zeure burua heriotzera arte gorrotatzea. Ulertezina omen da..., ulertezina...

Beraz, zertarako azaldu gaixotasun hauen gorabeherak ezer ulertu nahi ez duenari? Entzuteko eta laguntzeko prest ez dagoenari?

Zertarako adierazi, Bulimia duen gaixo batek janarekiko duen dependentzia, drogazale batek drogarekiko duen menpekotasunaren antzekoa dela?

Zertarako ulertarazi, ispilura begiratzen dutenean, euren buruak nazka ematen diela? Haragi masa lodi-zakar-baldar-okagarri baten modura ikusten dutela nahiz eta errealitatea bestelakoa izan?

Zorionez, nire errealitatea bestelakoa zen. Nahiz eta Anorexia sufritu, lagun nahiz familiakoek errazago ulertzen zituzten nire gaixotasunaren sintoma eta mekanismoak. Argaldu egin nahi dugunez, logikoa iruditzen zaie jateari uztea; logikoa iruditzen zaie denboraren poderioz gosea galtzea eta jan nahi ez izatea; ulergarria deritze gero eta argalagago egon nahi izateari edo, hezurretan egon arren ispiluan gizen ikusteari.

Burua gehiegi nekatu beharrik ez dagoenez, dena logikoa iruditzen zaie, ulergarria. Hitz gutxi-

tan, gaixotasun bat. Baina Bulimiaren nondik norakoak konplexuagoak direnez eta kognizioen munduan, bi gehi bi ez direnez lau, gaixotasuna fenomeno ulertezin bihurtzen da.

Hostoek erortzen jarraitu zuten, negua udazkenaren eskutik etorri zen arte. Euria, haizea, ekaitzak..., txunditurik begiratzen genituen eritetxeko leihotik. Orduak igarotzen genituen ekaitzei begira, euriaren kantua entzunez... Naturaren zikloa maitatzen ikasi genuen.

Nire bizitzako egunik gogorrenak izan baziren ere, zoriontsua nintzen, Izaro ezagutu bainuen.

Negu hartan, inoiz ezagutu den lagun arteko harremanik indartsuena jaio zen. Hala uste nuen behinik behin, herenegun arte, Izarok bakarrik utzi ninduen arte.

Betiko lagunak izango ginela agindu arren, beti elkarrekin egongo ginela zin egin arren, zainak ebaki zituen bere buruaz beste eginez.

Gaur ere euria ari du, ari eta ari atergabeko ekinean. Teiletan berriz, haizeak dihardu kantatzen, lehertu berri den ekaitza poesia bihurtuz.

Egun berri bat esnatu da. Izaroren heriotzera ohitzera bultzatuko nauen egun berri bat.

Berarengatik eta maite nautenengatik, anorexia-ri aurre egiten saiatuko naiz. Heriotza gorrotatzen ikasiko dut, nahiz eta jateari uzteko desira eta Izarorekin elkartzeko irrika, bihotzeko txoko ezkutuenean bizirik mantendu.